



Usurbilgo Udala

2019KO MARTXOAREN 28AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Gartzia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ezin-etorria adierazi du: Xuban Zubiria Elexpe.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2019ko martxoaren 28an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA: 2019/02/26KO AKTA.

Batzarkideek, 2019ko otsailaren 26ko akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO OTSAILAREN 18TIK MARTXOAREN 22RA (2019/0202-2019/0293).



Usurbilgo Udala

Alkatetzak 2019ko otsailaren 18tik martxoaren 22ra bitartean (2019/0202–2019/0293) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2019KO APIRILAREN 28AN OSPATUKO DIREN HAUTESKUNDE OROKORRETARAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA.

CONOCE aplikazio informatikoa erabiliz, 2019ko apirilaren 28an izango diren Hauteskunde Orokorretarako mahaikideak hautatzeko zozketa egin da.

Aipatu da zozketa publikoki egitearen arrazoia gardentasuna bermatzea dela, baina datu horiek babestu egin behar direla eta, ondorioz, ezin direla banatu.

4.- USURBILGO UDALAREN PARTE HARTZEA BETERRI-BURUNTZA ESKUALDEKO TOKIKO GARAPEN EKONOMIKO ETA SOZIALERAKO MANKOMUNITATE BATEN SORRERAN.

Alaitz Aizpuruak azalpenak eman ditu. Gai hau bi batzordetatik pasa dela esan du, batetik, Tokiko Garapen batzordetik non gaiaren nondik norakoak aipatu ziren eta, bestetik, Antolakuntza batzordetik non diktaminatu egin zen.

Beterri-Buruntza eskualdea sei udalerrik osatzen dutela azaldu du (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) eta Gipuzkoan garapen agentziarik ez dagoen eskualde bakarra dela gaineratu du, nahiz eta azken urte hauetan ahaleginetan ibili diren eta enplegu alorrean lankidetzaz zabala eduki duten.

2017an lankidetzaz-hitzarmen bat sinatu zela eta eskualdeko udalak hitzarmen horren baitan lanean aritu direla esan du. Azpimarratu du 1,3 milioiko aurrekontua duela.


Lankidetzaz-hitzarmen horren xedeetako bat eskualde mailako egitura juridiko bat sortzeko azterketa egitea zela adierazi du. Hori horrela, 2017tik sei udalak batzorde kudeatzaile baten bitartez lankidetzaz horretan aritu direla esan du.

Lankidetzaz horretan mankomunitate baten sorrera hobetsi dela azaldu du.

Pleno honetara dakartena da mankomunitate horren sorreran Usurbilgo Udalak ere parte hartzeko konpromisoa hartzen duela. Hala ere, gaineratu du jada adostuta dauden estatutu batzuk ere landuta badaudela.

Bestalde, erabaki honetan udal bakoitzak Batzorde Sustatzaileko ordezkariak ere izendatzen dituela esan du.

Amaitzeko, erabakiaren bigarren puntua azpimarratu nahi izan du Alaitzek. Lehen aipatu bezala estatutuen zirriborro bat jada landuta eta adostuta dagoela dio eta hauen



Usurbilgo Udala

baitan mankomunitate baten sorreran ezin du egon udal batek baldin eta plan ekonomiko-finantzario bat baldin badu. Momentu honetan egingo balitz, Usurbilgo Udalaren kasua dela hori zehaztu du. Hala ere, estatutuak berak jasotzen duela dio udal batek mankomunitatearen sorreran ezin izango balu egon, baldintzak betetzen dituenean bigarren fase batean inkorporatzeko aukera izango lukeela. Bitarte horretan herri horrek eta mankomunitateak lankidetzaz hitzarmen bat izango lukete, gaur egun udalen arteko lankidetzaz hitzarmenaren antzekoa.

Batzarkideek, Antolakuntza Batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.12/2019-0075

Beterri-Buruntza eskualdea osatzen duten udalek (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) 2017ko urtarrilaren 27an elkarren arteko lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, horren xedeetako bat izanik tokiko garapen, sustapen ekonomiko eta enplegu alorrean eskualde mailako egitura bat sortzeko azterketa egitea. Hitzarmen horri esker Beterri-Buruntzako udalak lanean aritu dira eskualde mailako garapen agentzia baten babesean elkartzeko, jarraian adierazten diren udal eskuduntzako zerbitzu eta/edo obren exekuziorako: “tokiko garapen ekonomiko eta soziala, enpleguko politika edo planak, tokiko merkataritzaren eta turismoaren promozioa eta kudeaketa”.

Ikusirik Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru arauaren 4. eta hurrengo artikuluen edukia, eta jakinik arestian aipaturiko herrien arteko elkarlana, azaldutako xedeei dagokienez, onuragarria dela udal honentzat eta bertako bizilagunentzat, baliabide publikoak modu egokiagoan kudeatzeko aukera eskainiko duelako.

2017an sinatutako udalen arteko lankidetzaz hitzarmenaren ondorioz sortutako Batzorde Kudeatzaileak 2019.02.13an adostu zuen aipatutako udalei helaraztea proposamen bat, Plenoan erabaki dezaten konpromisoa hartzea Beterri-Buruntza eskualdeko tokiko garapen ekonomiko eta sozialerako mankomunitatearen sorreran parte hartzeko.

Horrenbestez, Antolaketa Batzordeak, 2019ko martxoak 15 ostiralean, aho batez egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehena: Udal honek konpromisoa hartzen du arestian aipaturiko xedeetarako mankomunitatearen sorreran parte hartzeko.

Bigarrena: Udal honek, lehen fasean sartu ezingo duten eskualdeko udalak txertatzeko konpromisoa hartzen du, sortuko den Mankomunitatearekin sinatutako lankidetzaz hitzarmen baten bitartez eta bigarren fase batean sartu ahal izateko bidea irekia utziz.



Usurbilgo Udala

Hirugarrena: Mankomunitatearen Batzorde Sustatzaileko ordezkari izendatzea jarraian azaltzen diren kideak:

- Alaitz Aizpurua Labaka And., Zinegotzi delegatua,
- Xabier Arregi Iparragirre Jn. (ordezkoa).

Izendapena indarrean egongo da oraingo legealdia bukatu artean eta funtzioetan datorren korporazioak beste pertsona izendatzen duen artean.

Laugarrena: Akordio honen berri ematea 2017ko urtarrilaren 27an Tokiko Garapen, Sustapen Ekonomiko edota Enplegu gaietarako lankidetzeta hitzarmena sinatu zuten Beterri-Buruntza eskualdeko udalei.

Bostgarrena: Akordio honen berri ematea udal mailako lansail guztiei, jakinean egon daitezen.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- HAASETAKO A-78 (ZAPATEGI) EREMUKO HIRIGINTZA EZAUGARRIEN ALDAKETA PUNTUALA (03 ALDAKETA). HASIERAKO ONARPENA.

Alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Hasteko, Zapategi eremua Gureak eta Elkar doazen Michelinen eremua dela zehaztu du.

Hirigintza batzordean diktaminatu zela esan du eta diktamenean aipatzen diren aurrekarien berri eman du.

Dokumentua udal arkitektoak eta udalaren aholkulari juridikoak idatzi dute eta horrek garbi adierazten duela dio udalak norainoko konpromisoa duen proiektu honekin.

Dokumentu honek eremu horren erabilera berriak eta eraikigarritasunak markatzen dituela esan du. Era berean, kontutan hartzen dituela dio hainbat aspektu sektorial, hala nola, izan dezakeen eragin akustikoa, eragin linguistikoa, genero ikuspegitik ere azterketa bat egin dela eta bideragarritasun ekonomikoaren azterketa baita ere. Gaineratu du dokumentu honek lanketa xehatu bat egiten duela.



Usurbilgo Udala

Bestalde, lanketa honetan eremu horretan interesa duten enpresekin etengabeko harremanetan egon direla azpimarratu du.

Ondoren, izapidetzari buruzko zehaztasunak eman ditu.

Pleno honek behin betiko onespena eman ondoren, Arauen aldaketa onartzeko eskumenik ez duenez, txostena Gipuzkoako Foru Aldundiko hainbat departamentuetara bidali beharko dela jakinarazi du. Gaineratu du kontsulta bat egin dela eta ingurumen baimena lortzeko prozedura sinplifikatua jarraitzea eskatu dela. Beraz, arauen aldaketaren behin betiko onespena Foru Aldundiak egingo duela jakinarazi du.

Batzarkideek, Hirigintza Batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2018-0496

AURREKARIAK

Usurbilgo udalerrian hiri antolamenduko plangintza orokorra jasotzen duen dokumentua osatzen du Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginak. Berau 2013ko otsailean idatzia eta urte bereko maiatzaren 28ko osoko bilkuran onartua izan zen; 2013ko uztailaren 22ko Foru Agindu bidez argitaratzea adostu zelarik (GAO 172. zbkia. 2013-ko irailaren 10ekoa).

Bertan zehazten dira, besteak beste, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuaren hirigintza ezaugarriak.

Plenoak, 2018ko irailaren 25ean, aho batez, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala sustatzeko Michelin España y Portugal, S.A., Gureak Lanean S.A., Elkarlanean Fundazioa eta Usurbilgo Udalaren artean izenpetu beharreko Hirigintza Hitzarmena behin betiko izaeraz onartzea erabaki zuen. Higintza Hitzarmena, 2018ko urriaren 17an izenpetu zen.

ALDAKETA PUNTUALERAKO DOKUMENTUA

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (TE) ZAPATEGI eremuaren aldaketa puntualaren (03. aldaketa) dokumentua udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martinez andereak datzi dute.

ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA



Usurbilgo Udala

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martinez andereak, idatzitako dokumentuan zehazten dira aldaketaren xedea eta justifikazioa. Hitzez hitz honela dio:

1.- ALDAKETAREN XEDEA / OBJETO DE LA MODIFICACIÓN.

Arauen Aldaketa dokumentu honen helburua da Usurbilgo Hiri antolamenduko Arauen Testu Bateginak A-78 (TE) ZAPATEGI eremurako finkatutako zehaztapenak berrantolatzea bi eremuetan banatuz. Alde batetik, A-78 (TE) MICHELIN eremua, hiri-lur kontsolidatua, egungo eremuaren murrizketaren ondoriozkoa dena, bertan dauden eraikinak eta MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL S.A. jarduera kontsolidatuz.

Bestetik, A-110 (TE) ZAPATEGI eremu berria, hiri-lur ez-kontsolidatua, egungo eremutik banatzen diren lurren, GI-3138-tiko sarbidearen eta Ori ibai ertzeko lursail birklasifikatuen gehikuntzaren emaitza izango dena. Bigarren eremu berri honetan izaera sozial eta kulturala duten jarduera ekonomikoak ezarriko dira, hala nola; ELKAR FUNDAZIOA eta GUREAK LANEAN S.A.

LEGE TXOSTENA

Udal Idazkariak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren honako txostena egin du:

LEGE-TXOSTENA

Esp. Zenbakia: HZ.01/2018-0496

GAIA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala (03 aldaketa). Hasierako onarpena.

AURREKARIAK

Usurbilgo udalerrian hiri antolamenduko plangintza orokorra jasotzen duen dokumentua osatzen du Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginak. Berau 2013ko otsailean idatzia eta urte bereko maiatzaren 28ko osoko bilkuran onartua izan zen; 2013ko uztailaren 22ko Foru Agindu bidez argitaratzea adostu zelarik (GAO 172. zbkia. 2013-ko irailaren 10ekoa).

Bertan zehazten dira, besteak beste, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuaren hirigintza ezaugarriak.

Plenoak, 2018ko irailaren 25ean, aho batez, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala sustatzeko Michelin España y Portugal, S.A., Gureak Lanean S.A., Elkarlanean Fundazioa eta Usurbilgo Udalaren artean izenpetu beharreko Hirigintza Hitzarmena behin betiko izaeraz onartzea erabaki zuen. Higintza Hitzarmena, 2018ko urriaren 17an izenpetu zen.



Usurbilgo Udala

ALDAKETA PUNTUALERAKO DOKUMENTUA

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (TE) ZAPATEGI eremuaren aldaketa puntualaren (03. aldaketa) dokumentua udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martinez andereak datzi dute.

Gauzak horrela, txosten hau Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2.c) eta 47.2.ii) artikuluetan, apirilaren 18ko 781/86 Errege Dekretu Legegilearen 54.1.b) artikuluan eta irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren 3.b.) artikuluan xedaturikoa betetzeko ematen da.

LEGEDI APLIKAGARRIA

Aldaketa espediente hau, erkidegoko eta estatutuko legedia beteaz egiten da, zehazki lege hauek aplikatuz:

Aldaketa espediente hau, erkidegoko eta estatutuko legedia beteaz egiten da, zehazki lege hauek aplikatuz:

- 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- Ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua, presako neurriei buruzkoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duena.
- 2008ko azaroaren 28ko Legea, hirigintza ekintzak sortutako gainbalioetan erkidegoaren parte-hartzea aldatzen duena.
- Uztailaren 3ko 123/2012 Dekretua, hirigintza estandarrei buruzkoa.
- Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua.

ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martinez andereak, idatzitako dokumentuan zehazten dira aldaketa xedea eta justifikazioa. Hitzez hitz honela dio:

1.- ALDAKETAREN XEDEA / OBJETO DE LA MODIFICACIÓN.

Arauen Aldaketa dokumentu honen helburua da Usurbilgo Hiri antolamenduko Arauen Testu Bateginak A-78 (TE) ZAPATEGI eremurako finkatutako zehaztapenak berrantolatzea bi eremuetan banatuz.

Alde batetik, A-78 (TE) MICHELIN eremua, hiri-lur kontsolidatua, egungo eremuaren murrizketaren ondoriozkoa



Usurbilgo Udala

dena, bertan dauden eraikinak eta MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL S.A. jarduera kontsolidatuz.

Bestetik, A-110 (TE) ZAPATEGI eremu berria, hiri-lur ez-kontsolidatua, egungo eremutik banatzen diren lurren, GI-3138-tiko sarbidearen eta Oria ibai ertzeko lursail birklasifikatuen gehikuntzaren emaitza izango dena. Bigarren eremu berri honetan izaera sozial eta kulturala duten jarduera ekonomikoak ezarriko dira, hala nola; ELKAR FUNDAZIOA eta GUREAK LANEAN S.A.

DOKUMENTAZIOAREN OSAKETA

Plan orokorrak jaso beharreko agiri edo dokumentazioari dagokionez, honako hau adierazten digu 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Hirigintza eta lurzoruari buruzkoak 62.art.-an:

62. artikulua.– Agiriak.

1.– Plan orokorren edukia agiri hauetan formalizatuko da gutxienez:

- a) Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza-ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen-elementuak dakartzan informazio guztia jaso beharko du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta aukeratutako soluzioen justifikazioa.
- b) Ingurumen-kalteari buruzko aurretiazko txostena betetzearen memoria justifikatiboa. Memoria horretan, gainera, garapen eramangarriaren ikuspuntutik arrazoitu beharko da hautatutako antolamendua, eta lurzoruak planean aurreikusitakoa betetzeko duen hartze-gaitasuna ere kontuan izan.
- c) Informazio-planoak.
- d) Egiturazko antolamenduaren planoak.
- e) Antolamendu xehatuaren planoak.
- f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

2.– Plan orokorretan hirigintzarako eta eraikuntzarako katalogoak eta ordenantzak ere sartu ahal izango dira.

Dokumentuaren edukia honakoa da:

- A DOKUMENTUA: MEMORIA INFORMATIBOA ETA JUSTIFIKATIBOA.
- B DOKUMENTUA: HIRIGINTZA ARAUAK.
- C DOKUMENTUA: ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA JARRAIBIDEAK.



Usurbilgo Udala

- D DOKUMENTUA: BIDERAGARRITASUN EKONOMIKO ETA FINANTZIARIOAREN AZTERLANA. IRAUNKORTASUN EKONOMIKOAREN TXOSTENA.
- E DOKUMENTUA: INGURUMEN DOKUMENTU ESTRATEGIKOA. AZTERLAN AKUSTIKOA.
- F DOKUMENTUA: PLANOAK.
- G DOKUMENTUA: LABURPEN EXEKUTIBOA.
- H DOKUMENTUA: ERANSKINAK.

- x I. ERANSKINA: ANTOLAMENDU KOADROA
- x II. ERANSKINA: ALTXAMENDU TOPOGRAFIKOA
- x III. ERANSKINA: GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENA.
- x IV. ERANSKINA: ERAGIN SOZIOLINGUISTIKOAREN TXOSTENA.
- x V. ERANSKINA: HERRITARREN PARTEHARTZEA.
- x VI. ERANSKINA: IRISGARRITASUN BALDINTZEN SUSTATZEA.
- x VII. ERANSKINA: ANTOLAMENDU BERRIAREN IRUDIAK

Beraz, dokumentazioa egoki osaturik dagoela estimatzen da.

IZAPIDETZA

Plangintza aldatzea eta berrikustea 2/2006 Legearen 102. eta hurrengo artikuluetan jasotzen da. Kasu honetan, dokumentuan bertan adierazten den moduan, **Arau Subsidiarioen egiturazko antolamendua eta antolamendu-xehakaturia aldatu nahi da.** Beraz, aldaketa hau, 2/2006 Legearen 103. artikulua 4. atalean jasotakoaren arabera, edozein unetan egin daiteke.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 104. eta 105. artikuluetan, eta Lege hau garatzen duen premiazko neurri buruzko 105/2008 Dekretuko 33. eta 34. artikuluetan zehazten denaren moduan gauzatu daiteke Arauen aldaketa hau. hirigintza-planen edozein aldaketa egiteko, plan-mota berbera erabili beharko dela, eta, gainera, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko dela. Baina, Plan Orokorren aldaketetan salbuespen bat dagoela adierazten da, hain zuzen, **hautazkotzat hartzen du aurrerakinaren tramitazioa.**

2/2006 Legearen 104.art.an hirigintzazko planen aldaketarako prozedura zehazten du, eta honela dio:

“...zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili beharko da, eta gainera, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da. Arau horretatik kanpo geratuko dira honako hauek: c) plan orokorraren aldaketak-hautazkoa dutenean aurrerakinaren (abantzea) tramitazioa.



Usurbilgo Udala

Zentzu honetan, legearen 87.art.an: “aldaketa kasuetan, aukerakoa izango da aurrerakina egitea”. Beraz, kasu honetan ulertu behar da plan orokorra aldatzeko prozedura jarraitu behar dela, baina aurrerakina izapidetu beharrik gabe.

Aldaketa espedientearen herritarrek parte hartzeko programari dagokionez, Lurzoruaren euskal Legeak 108. artikuluan plan orokorren onarpen prozeduran herritarrek parte hartzeko programa xedatzen du, adieraziz, beharrezkoa dela herritarrek parte-hartzeko programa bat finkatzea. Horrela dio hitzez hitz:

Plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programa. Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerraren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu. Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

a) jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitzeko erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko.

b) Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian finkatutako prozedurari jarraituta.

c) Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako legez eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagutu eta ulertu ditzan.

Aldaketa espediente honen izapidetzeak jarraituriko partehartze irizpideak, H DOKUMENTUA: V. ERANSKINA: HERRITARREN PARTEHARTZEA atalean atxiki dira.

Bestetik, honela dio legearen 90.art.ak:

“1.– Udalari dagokio plan orokorra egitea. Egitea erabakitzen denean, informazioa eskatuko zaie Eusko Jaurlaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Informazio hori emateko, bi hilabeteko epea egongo da, eta justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera emango da.



Usurbilgo Udala

Era berean, **ez da beharrezkoa izango, 90. artikulua bere 1. atalean jasotako txostena eskatzea**, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko txostena.

Hori bai, alderdi hau hiri-antolamenduko plan orokorrak berrikusteko prozeduran aplikagarria da, eta aldaketa puntualen kasuetan, kontsulta hauek espedientea planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egitearen baitan dago.

2013ko abenduaren 11ko 296. BOEn, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea argitaratu zen. Azken xedapenen artean zortzigarrenak ezartzen duenez, Konstituzioaren 149.1.23 artikuluari jarraikiz, ingurumena babesteko oinarritzko legeria ezartzeko ingurumen-eskumena Estatuarena da.

Indarreko Legeria autonomikoari jarraikiz, zehazkiago, ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorrari eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuari jarraikiz, Estatuko Lege horrek ebaluazio estrategikoa egiteko bi prozedura arautzen ditu: *arrunta eta sinplifikatua*.

Usurbilgo Udalak ingurumen-organoari kontsulta egin zion, jarraitu beharreko prozedura zehazteko helburuarekin.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak 2019ko urtarrilaren 10ean adierazi zuenez, ingurumen-ebaluazio **estrategiko sinplifikatua** ezarri behar zaio. Honela zioen hitzez hitz:

2018ko urriaren 4ean Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentu honetan sartu da Usurbilgo Udalaren kontsulta bat Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak zehaztu dezan Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Testu Bategineko A-78 (TE) "Zapategi" arearen aldaketa puntualak ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura burutu behar duen.

Bidalitako dokumentazioa ikusi eta gero, eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2.a) artikulua araber, Zuzendaritza honek ondorioztatzen du plan bereziak ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura jarraitu behar duela.

Edozein kasutan ere, 21/2013 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren bigarren puntuaren araber, jakinarazten dizut aldaketaren hirigintza fitxan zehazten



Usurbilgo Udala

eta jasotzen bada planteatutako area berriaren (A-110) antolamendu xehatua ondorengo plan berezi baten bitartez egingo dela, aldaketaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua atzeratu eta egin ahal izango da plan bereziaren onarpenaren tramitazioaren barruan.

Beraz, aldaketaren tramitazioa egitea erabakitzen bada (eta aldaketak antolamendu xehatua jasotzen badu, ondorengo plan berezi baten beharrik gabe), aipatutako 21/2013 Legearen 29. artikuluan ezarritakoan jarraituz, Usurbilgo Udalak dagokion ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren hasteko eskaera aurkeztuko dio Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honi, aipatutako artikuluan edukiak izango dituen Ingurumen-agiri estrategikoarekin batera.

Donostia, 2019ko urtarrilaren 10a
INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIA


Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 29. artikulua ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura arautzen du, honako hauek nabarmentzen direlarik:

1. Ingurumen-organoari Planaren dokumentua eta ingurumen-dokumentu estrategikoa bidali behar zaizkio.
2. Ingurumen-organoak 10 egun dauzka dokumentu osagarriak eskatzeko.
3. Ingurumen-organoak hogeit hamar egun balioduneko epea dauka hasiera-eskaera jasotzen duenez geroztik izapidetzea ez onartzeko. Ingurumen-dokumentuak kalitate-baldintzak betetzen ez dituelako edo plana bideragarria ez delako.
4. Ingurumen-organoak eraginpeko Administrazio publikoei eta interesdunei galdetuko die, eta dokumentua haien esku jarriko du. Gehienez ere 45 egun balioduneko epea izango dute iritzi bat emateko. Epea amaitu ondoren, **Ingurumen-organoak ingurumen-txosten estrategikoa idatziko du.**

Arau Aldaketa Puntualeko dokumentua behin behingoz onartu aurretik ingurumen-txosten estrategikoko zehaztapenak hartu beharko dira kontuan.

Bestetik, honela dio 2/2006 legearen 90.art.k:

*5.- Udalak hasierako onespena emango dio plan orokorrari, eta ondoren jendurrean jarriko du, udalerrinari dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz. **Plana hilabetez egongo da jendurrean, azken argitalpenetik kontatzen hasita. **Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie*****



Usurbilgo Udala

hasierako onespenaren berri, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten;

Aurrekoaren ildotik, Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onespenaren berri. Kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari eta Mugikortasuneko Departamentuari, URA-Uraren Euskal Agentziari eta Lasarte-Oriako Udalari bidali beharko zaio.

6.- Jendaurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, udalak behin-behingo onartuko du plan orokorra, bidezko iritzitako egokitzapenak eginda. Dena den, egokitzapen horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onespena eman beharko dio berriz planari eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik."

Bestalde, legearen 91.artikuluak: (plan orokorra behin betiko onartzea)

1.- Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena udalei dagokie 7.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, eta foru-aldundiei gainerakoetan; kasu bietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak txostena egin beharko du aurretiaz.

*2.- **Plan orokorra udalak onartuko du behin-behingo eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio.** Batzordeak txostena egingo du, eta txostenak dioena loteslea izango da plan orokorra lurralde-antolamenduko tresnei egokitzeari dagokionez eta, aplikagarri den araudiaren arabera eta onartutako udalez gaineko proiektuen arabera, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo lurraldeko administrazioaren eskumeneko diren alderdi sektorial guztiei egokitzeari dagokionez.*

Beraz, behin behingo onartu eta gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidaliko zaio, eta gero, bere kasuan, dagozkion aldaketekin, Foru Aldundira bidaliko da espedientea.

*4.- **Beharrezko aldaketak eginda, udalak plan orokorra behin betiko onartuko du edo, bestela, foru-organari bidaliko dio espedientea, hark hiru hilabete baino lehen behin betiko onartzeko.***

Atal honi dagokionez, eta artikulua honetako 1.atala kontutan hartuz, foru-organora bidali behar du udalak espedientea honek behin-betiko onespena eman ahal diezaion.



Usurbilgo Udala

Bestalde, adierazi behar da, apirilaren 2ko 7/1985 legeak 22.2.c)art.ak xedatutakoaren arabera, **udalbatza plenoari dagokio** plangintza orokorrari buruzko akordioak hartzea: *“La aprobación inicial del planeamiento general y la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística”*.

Beraz, hasierako onespina eta behin behinekoa udalari dagokio. Bi kasuetan, **gehiengo absolutuz onartu beharko da aldaketa**, honela baitio apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.art.ak: *“Se requiere el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de las corporaciones para la adopción de acuerdos en las siguientes materias: II) Los acuerdos que corresponda adoptar a la corporación en la tramitación de los instrumentos de planeamiento general previstos en la legislación urbanística.”* Hori egin ondoren, espedientea Foru Aldundira igorri beharko da honek behin betiko onspina eman ahal diezaion.

Bestalde, legearen 85.art.ren arabera, *“3.– Hirigintzako planei hasierako onespina emateak berekin ekarriko du edozein eratako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko aukera **etetea** planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan dituzten eremuetarako. Etendura horrek ordezkatu egingo du aurreko paragrafoan zehaztutako neurria, neurri hori aurretik hartuta baldin badago”*, *“4.– Etendura berez iraungiko da ezarritako gehienezko epea amaitzen denean, edo, izapidetzen ari den planari behin betiko onspina epea amaitu baino lehen ematen bazaio, ematen zaion unean”*.

2.atalak berriz, honako hau dio: *“2.– Eragingarria izan dadin, aurreko paragrafoan aipatzen den etete-erabakia dagokion lurralde historikoaren aldizkari ofizialean eta hedadura gehien duten egunkarietako batean argitaratu behar da”*.

Laburbilduz, **izapidetzeari dagokionez**, honako hauek dira **eman beharreko pausu nagusiak**:

- Ingurumen-organoari Arau Aldaketaren dokumentua eta ingurumen-dokumentu estrategikoa bidaliko zaizkio.
- Hasierako onspina udalbatza plenoari dagokio, gehiengo absolutuz
- Arau Aldaketa hilabetez jarriko da jendaurrean, azken argitalpenetik zenbatzen hasita. GAO-n, eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian/egunkarietan argitaratuko da.
- Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onspinen berri. Kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari eta Mugikortasuneko Departamentuari, URA-Uraren Euskal Agentziari eta Lasarte-Oriako Udalari bidali beharko zaio.



Usurbilgo Udala

- Dokumentua behin behingoz onartu aurretik ingurumen-txosten estrategikoko zehaztapenak.
- Plenoak, alegazioak ikusita, behin-behingoz onartuko du dokumentua gehiengo absolutuz, bere kasuan dagozkion aldaketak egin ondoren. Aldaketek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onespena eman beharko dio berriz eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingoz onartu aurretik.
- Ondoren, euskal autonomia erkidegoko lurraldearen antolamendurako batzordeari bidaliko dio espedientea, honek txostena egin dezan.
- Bere kasuan, beharrezko aldaketak eginda, Foru Aldundiari bidaliko dio dokumentua honek behin betikoz onar dezan (udalerriak 7000 biztanle baino gutxiago dituenek, behin betiko onarpena organo honi dagokio)

Hauxe da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritziren kalterik gabe.

Usurbilen, 2019ko martxoaren 11an
Udal idazkariak
Irantzu Arrizabalaga Gainza

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2019ko martxoaren 14an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar, Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, aho batez egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategineko A-78 (TE) ZAPATEGI eremuaren Aldaketa Puntuala (03. aldaketa)hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Onartutako dokumentazioa jendaurrean jartzea hilabeteko epealdian, iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan iragarkia argitaratuz, interesatuek hala baderitzote dagokien alegazioak aurkeztu ditzaten.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 03 aldaketa honek egitasmoren batean eragingo balu eraikitze eta lur zatiketarako baimen emakidak etetea, beti ere hartutako erabaki berriak indarrean dagoen Erregimen Urbanistikoa aldatzen badu.

Haserako onespenera loturiko etendura gehienez bi urtebeteko epean indarrean egongo da, aipatutako planaren behin betiko onespenera lortzen denean indarririk gabe geratuko delarik.”



Usurbilgo Udala

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- USURBILGO ETA DONOSTIAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ZUBIETAKO EREMUAN EXEKUTATUTAKO OBRA ETA ZERBITZUEN INGURUAN.

Jone Urdanpilletak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Argitu du nahiz eta Zerbitzuak batzordetik diktaminatuta datorren eta sail horretatik bideratzen den, gai honek ingurumenarekin ere zerikusia baduela.

Jarraian, azaldu du Zubietako enklabea bi udalerrik osatzen dutela, Donostiak eta Usurbilek, eta Zubietako Herri Batzarrak bertan dauden azpiegitura eta zerbitzuak bi udalerrien artean nola banatzen diren argitzea eskatu zuela.

Gaineratu du Herri Batzarra Araudi Organiko baten bitartez osatuta dagoela eta bertan azaltzen dela dio bi udalerriek funtzionalki nola emango duten zerbitzua.

Aipatutako zerbitzuak hitzarmen baten bitartez banatuko direla bi udalerrien artean jakinarazi du.

Hitzarmenak 9 eranskin dituela adierazi du, lehenengo 8etan mapa edo irudietan jasotzen dira nola banatzea hitzartu den eta 9.ean kostuen banaketa nola egin den.

Azken momentuan konturatu direla esan du hitzarmeneko klausuletan akats material txiki bat dagoela eta horren berri eman du. Lehenengo klausulan, bigarren puntuari aipatzen dela dio bosgarren klausulan zerrendatutako zerbitzuak ematea, eta 8 aipatzen direla baina benetan 12 direla zehaztu du. Jarraian, 12 zerbitzu eta jarduketak horiek zerrendatu ditu eta baita eranskinetan jasotzen dena ere.

Udalerrri bakoitzak bere gain hartzen duen gastua momentu honetan parekatuta geratzen dela dio, baina azpimarratu du jarraipen eta kontrol batzorde bat osatuko dela hitzarmen honen jarraipen eta balorazio bat egiteko.

Zubietako Herri Batzarra hartutako erabakiarekin ados azaldu dela jakinarazi du.

Alkateak aipatu du akordio honetan ez dela hain nabarmen jasotzen baina argitu nahi izan du tasei eta zerbitzuen kibraketari begira, beti zalantza bat sortzen dela eta da "ni udalerrri batekoa izanik, beste udalerrriak ematen badit zerbitzu bat, nori ordaindu behar



Usurbilgo Udala

diot?”. Administrazioaren legeak hala behartuta, nahiz eta zubietarrek etsipenez hartu duten, Usurbilen bizi direnek Usurbili ordainduko diote eta bertako tasen arabera, eta Donostian bizi direnek Donostiari bertako tasen arabera. Esan bezala, juridikoki ez dela bestelako irtenbiderik ikusi azpimarratu du.

Josune Urkolak galdetu du ea tasetan desberdintasun handiak dauden.

Alkateak erantzun dio gauza batzuetan badaudela desberdintasunak.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Mantenua Batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.06/2019-0155

Aurrekariak

Zubietta ezaugarri bereziko enklabe bat da, Donostiako eta Usurbilgo udal mugarteena. Unitate sozial eta territorial berezi bat da, eta beti izan ditu berezko ezaugarriak eta nortasuna, baita antolakuntza administrazio ezberdina ere.

Antzina, auzo batzarrak zaintzen zituen bideak, mendiak, erriberako lurak eta errendatutako etxeak, komunitate hori legez desagerrarazi zen arte. Horren ondorioz, auzotar batzuk Donostiaren mendean gelditu ziren, eta, beste batzuk, Usurbilen mendean.

Usurbilgo eta Donostiako osoko bilkuretako erabaki batzuek (1996) aitortu zuten Zubietta ezaugarri bereziko enklabe bat zela. Aipatutako erabakietan onartutako araudian ezarritakoari jarraituz, batzar administratibo bat sortu zen, “Zubietako Auzo Batzarra”, administrazioaren organo osagarri bat.

Auzo batzar horrek sei kide ditu: horietatik hiru Donostiako biztanleak dira, eta beste hirurak Usurbilgo biztanleak (guztiak bizi dira Zubietan).

Kide horiek zuzeneko hauteskunde kontsulta baten bidez aukeratzen dira, eta hori udal bakoitzak antolatzen du, berari dagokion zatian. Udal hauteskondeekin batera izaten dira. Auzo Batzarreko presidentea auzo alkatea da, eta bi urtean behin izendatzen du, txandaka, dagokion udaleko alkateak, batzarreko kideen artean.

Hori arautzen duen Erregelamendu Organikoaren (GAOn 2005eko abuztuaren 4an argitaratua) eta Erregelamenduaren I. Eranskinaren (GAOn 1995eko urriaren 5ean argitaratua) arabera Auzo Batzarri, Usurbilgo Udalari eta Donostiako Udalari dagozkien zereginen artean, honako hauek dira aipagarriak:

- 1.- Donostia eta Usurbilgo udalei Zubietako arazo berri ematea.
- 2.- Udal zerbitzuei aholkuak ematea haiei esleitutako lanetan.



Usurbilgo Udala

- 3.- Proposamen zehatzak egitea, Donostiako eta Usurbilgo udalek batera edo banaka aztertu ditzaten.
- 4.- Bermatzea betetzen direla udalek ikerketen edo proiektuen inguruan hartutako erabakiak.
- 5.- Zuzenean kudeatzea udalek batzarraren esku jarritako funtsen kontuak. Hau da, batzarra eta auzoko zerbitzu publikoa mantentzeko bideratutako funtsak kudeatzea, baita batzarraren gain gelditutako esku hartzeak eta obra txikiak xede dituztenak ere.
- 6.- Donostiako eta Usurbilgo udalek esleitutako beste edozein zeregin.

Horrez gain, Donostiako eta Usurbilgo udalek honako hauek egin beharko dituzte:

- 1.- Batzarra informatuta mantentzea Zubietako enklabeari eragiten dieten proiektuen edo erabakien inguruan, beharrezko kontuetan lehenik batzarrari galdetzea eta enklabe horren inguruko erabaki guztien berri ematea.
- 2.- Zubietak dituen beharrak aztertzea eta hobekuntzak proposatzea, proposamenen jarraipena egitea eta informazioa trukitzea gai horien inguruan.
- 3.- Auzo Batzarraren esku uztea egoki iritzitako funtsak, Zubietako ohiko funtzionamendurako eta komunitateko lanerako.

Zubietako beste berezitasun bat da bi udal mugarte daudela. Usurbilen eta Donostiaren parte izateko berezitasun horrek eta funtzionalki eragiten duen mugarik ezak zenbait arazo dakartza kudeaketari dagokionez, bai egunerokotasunean bai inbertsioak egikaritzean, baita zenbait tasa eta zerga kobratzeari dagokionez ere. Izan ere, bi udal mugarte horiek bata besteari lotuta daude, ez soilik lurraldeari dagokionez, baita zerbitzu sareei dagokienez ere.

Bi udalek Zubietan egin dituzten jarduketa batzuk modu koordinatu eta partekatua egin dira, hitzarmen espezifikoaren bitartez, irtenbide puntual bat emateko.

Horietako bati ere merezimendurik kendu gabe, garrantzitsua da nabarmentzea bi udalek 2002ko martxoaren 22an sinatutakoa, dokumentu honek aipatutako hitzarmenaren xedeari eragiten diolako. Hitzarmen espezifiko horren helburua izan zen "ZU.03 Zubietako Zabalpena" gunearen hirigintza garapena. Hitzarmen horretan hainbat jarduketa irizpide ezarri ziren, hitzarmen honetan txertatu direnak, besteak beste, zuzkidura publikoak mantentzeari buruzkoak.

Egoera horri irtenbide global bat emate aldera, bi administrazioek herriko hainbat zerbitzu modu deskoordinatuan eman ez ditzaten (argiteria, uren hornidura eta saneamendua, hondakinen bilketa, mugikortasuna eta abar), eta Zubietako Batzarrak hala eskatuta, bi udalerriek lan talde bat sortu dute aipatutako batzarrarekin batera, zerbitzuak optimizatzeko, edozein dela ere horiek ematen dituen udala, Zubietarren onurarako.

Hitzarmenaren barruan egindako hausnarketaren ondorioa izan da zerbitzuak banatzea edo esleitzea tartean dauden tokiko entitateen artean, baita tasen kudeaketaren eta egin beharreko gastuak konpentsatzeko moduaren inguruko akordio bat ere. Hori guztia da hitzarmenaren xedea.



Usurbilgo Udala

Beraz, guzti hori ikusirik, Zerbitzuak eta Mantenua Batzordeak, 2019ko martxoaren 14ean egindako bilkuran, gehiengoz, Jone Urdanpilleta, Joxe Mari Iribar eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGO: Jarraian idatzitako Lankidetzeta Hitzarmena onartzea.

BIGARREN: Alkateari, Udalaren izenean Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARREN: Erabaki honen berri Donostiako udalari eta Zubietako Auzo Batzarrari ematea.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- GALDERA-ESKAERAK.

Alkateak jakinarazi die batzarkideei, dakiten moduan, Udal honek Eusko Jaurlaritzaren III. Errepide Planari alegazioak aurkeztu zizkiola eta erantzuna iritsi dela. Erantzunaren ondorioetan bi gauza esaten dituztela dio, batetik, ez dela onartzen N634 errepidea eskualde mailako errepideen sarean sartzeko proposamena, ezta partzialki ere. Honen inguruan Udalak bere alegazioan esaten zuena gogorarazi du, hau da, hemendik pasatzen den errepideak nazional izaera hori praktikan galdua zuela eta nolabait eskualde mailako izaera hartzea.

Bestetik, Udalak eskatzen zuena zen herriko bi biribilgune jarduketa planean edo ekintzetan jasotzea eta hau onartua izan dela jakinarazi du. Beraz, bi biribilguneak, herriko sarrerakoa eta Txokoaldekoa, Errepide Planean sartuko direla gaineratu du.

Beste kontu bati helduz, alkateak adierazi du Udaleko erregistroan egiten diren sarrera eta irteera guztien berri ematen zaiela zinegotziei baina, idazkariak hala esanda, Datuen Babeserako Legeak ez omen du baimentzen horrelako zabalkundea egitea.

Idazkariak gaineratu du zinegotzi izateak ez duela ahalmentzen egunerokotasunean herritarrak sartu duen informazioa edukitzea, Datuen Babeserako Legeak ez duela



Usurbilgo Udala

horretarako baimenik ematean zehaztu du. Kasu honetan ere herritarrak ez du baimendu berari dagozkion gaien berri zinegotziei ematea. Bestalde, udal langileon aldetik, lanean administrazioari konfidentzialtasuna zor diogula adierazi du.

Josune Urkolak dekretuei buruz galdetu du.

Idazkariak erantzun dio orain arte bezala dekretuak banatu egingo direla, zeren dekretuak dira zinegotziek alkatearen erabakiak fiskalizatzeko eta kontrolatzeko bide bat.

Alaitz Aizpuruak adierazi du berak ere behin baino gehiagotan kuestionatu izan duela baina, era berean, gardentasunaren eta datuen babesaren legearen edo printzipioaren artean kontradikzioa sortzen dela uste du. Aipatu du Usurbilgo Udalaren kasuan eta gardentasunaren ikuspegitik, badela denbora sarrera-irteerak oposizioari bidaltzen zaizkiola.

Jarraitu du esanez teorian aktibitate politiko batean politikariari ez liokeela zertan eragin behar eskaera herritar batena edo bestearena izan, baina errealitatea dela dio herritarrak asko zuzentzen direla zinegotziengana eta harremana zuzenekoa dela.

Josune Urkolak galdetu du jaso ez baina ea kontsultatzeko aukera izango ote luketen.

Idazkariak ezetz erantzun dio, kasu horretan ere legeak ez duela baimentzen, ez baitago herritarraren baimenik.

Alaitz Aizpuruak adierazi du bere ustez udaletxeko jarduerarekin talka egiten duela, hemen harremanak eta tratua oso pertsonalak baitira.

Idazkariak esan du arlo teknikoa eta arlo politikoa bereizi beharrekoak direla. Sarrerek eta irteerek prozedura administratiboaren bidea hartzen dutela zehaztu du.

Alaitz Aizpuruak galdetu du ea teknikari batek zinegotziari ezin al dion esan "eskaera hau jaso dugu", ze horrela pertsona horren datuak ikusiko lituzkeela.

Idazkariak erantzun dio horrela posible dela, zeren prozedura ez da berdina. Kasu horretan politikariak alde edo kontra egiteko informazioa eduki egin behar duela zehaztu du.



Usurbilgo Udala

Alkateak esan du argi geratu dela herritar batek nahiko balu zinegotzi batek bere eskaeraren berri izan dezala, hori espresuki baimendu egin behar duela.

Gaiaz aldatuz, apirilean hasiko den Korrika dela eta, Alaitz Aizpuruak jakinarazi du Usurbildik apirilaren 12an pasako dela 14:30ak inguruan eta, beti bezala, Udalak kilometroa hartuko duela. Udalaren kilometroa Kaparotzen hasi eta autobus geltokirainokoa izango dela zehaztu du. Hau horrela, zinegotzi guztiak Udalaren kilometroa egitera gonbidatu ditu.

Josune Urkolak, gaurko plenoko azken puntuarekin lotuta, Usurbilgo eta Donostiako Udalen artean sinatu den hitzarmenean zaborren bilketa eta tasak daudela jasota esan du, eta hor ikusi dute donostiarrek bi aukera izango dituztela, edo atez atekoa edo orain arte zeukatena, hau da, giltza bat izango dute garbiguneetara eramateko. Usurbildarrak, berriz, derrigorrez atez atekoa izango dutela zehaztu du.

Aipatutakoaren aurrean, publikoki iritzi bat argitaratu dutela jakinarazi du eta bertan adierazi duten bezala, usurbildarrek ere bietako bat hautatzeko aukera izan dezatela eskatzen dute.

Alkateak erantzun dio proposamen hori Donostiako Udalak Donostia alderako egin duela, hau da, bi aukerak ematearena. Beraz, egokia litzatekeela dio Donostia partean egin bada, Donostiari eskatzea Donostian atez atekoa jartzea eta, aldi berean, garbitxikia ere jartzea, eredu hori Donostiarako oso interesgarria dela uste baitu.

Momentu honetan Usurbilek Gipuzkoan beste inon ez dauden bilketa datuak dituela azpimarratu du, hori horrela, Usurbilek bere eredu aldutzen hastea desegokia litzatekeela uste du. Arazoak Donostiak dituela esan du, Donostiako bilketa datuak benetan penagarriak baitira. Donostiak Zubietan ikasteko aukera daukala uste du, eta Donostia osoan jarri dezatela atez ate eta garbitxikien sistema.

Alaitz Aizpuruak gogorarazi du Usurbilek bere garaian demokratikoki erabaki zuela bere herrian ze sistema nahi zuen eta, bestalde, Usurbilen lortu diren emaitzak beste inon ez daudela.

Josune Urkolak adierazi du egia dela Usurbilek bere garaian aukeratu zuela, baina horrek ez duela esan nahi ezin denik aldatu.

Datuak ez dituela eskuartean, eta ez duela esango datu hobeak direnik, baina beste sistema batzuekin ere datu oso onak badaudela azpimarratu du.

Galdetu du ea Zubietako usurbildar guztiek orain arte atez atekoa eduki duten edo orain ezarriko zaien.



Usurbilgo Udala

Alkateak erantzun dio guztiek ez dutela eduki. Planoan ikusi daitekeela dio kaskoan badirela etxe gutxi batzuk ez dutenak eduki, hala ere, esan beharra dagoela dio Donostia parteko batzuk atez atekoa ere eduki dutela.

Jone Urdanpilletak zehaztu nahi izan du zubietarrek ez diotela bizkarra ematen atez atekoari, are gehiago, behin eta berriz atez atekoa jartzeko eskatzen ari direla.

Alkateak zehaztu du Josune Urkolak esan duela lehen zegoen garbitxiki sistemari atez atekoa gehitu zaiola eta hori ez dela horrela, Donostia partean gaur egunean dagoena edukiontzien sistema baita.

Behin baino gehiagotan ikusi dutela dio ze kuxidade zegoen edukiontzien bilketarekin eta hori ikusita aldaketa bat egitea erabaki zela aipatu du. Gaineratu du Usurbilgo sistema ez zela inongo bileretan kuestionatu. Era berean, Donostiako sistemaz hitz egin zenean, Usurbilek esan zuela dio Donostiako norbait bere borondatez prest agertuko balitz Usurbilek bere zaborrak jasoko lizkiokeela. Hori horrela, modu adostuan erabaki zela esan du Donostia partean garbitxikiak gehi atez atekoa jartzea, atez atekoa borondatez nahi duenarentzat.

Alaitz Aizpuruak galdetu du ea nork dituen Usurbilgo datuak bezain onak, kontutan hartuta industriako bilketa guztia, kale garbiketako datuak eta egiten den bilketaren karakterizazioa.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:52ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.